



LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA

VICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

AGINDUA, 2020KO IRAILAREN 14KOA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA BETEKO DIRELA GIZARTEARI EMAN BEHARREKO EZINBESTEKO ZERBITZUAK 2020KO IRAILAREN 15ERAKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAN DEITUTAKO GREBA OROKORREAN.

ELA, LAB, STEILAS, CCOO eta UGT sindikatuek greba-deialdia egin dute unibertsitatez kanpoko Euskal Hezkuntza Sistemaren esparruan. Greba horrek hezkuntza-etapa guztiei (Haurreskolak barne) eta langile-talde guztiei eragingo die 2020ko irailaren 15ean, lanaldi osoz.

ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek greba-deialdia egin dute unibertsitatez kanpoko Euskal Hezkuntza Sistemaren esparruan. Greba horrek hezkuntza-etapa guztietako jantoki- eta garraio-zerbitzuetan izango du eragina (Haurreskolak barne) 2020ko irailaren 15ean, lanaldi osoz.

ELA, LAB, UGT, CCOO eta ESK sindikatuek greba-deialdia egin dute unibertsitatez kanpoko Euskal Hezkuntza Sistemaren esparruan. Greba horrek hezkuntza-etapa guztietako garbiketa-zerbitzuan izango du eragina (Haurreskolak barne) 2020ko irailaren 15ean, lanaldi osoz.

Deialdion guztion helburua, sindikatuen arabera, honako hau da: Ikasturte-hasiera presentzial, seguru eta adostua aldarrikatzea, eta euskal hezkuntza-sektoreko langileen osasuna babestea, langileen legezko ordezkariak ez baitaie helarazi informaziorik edo egin kontsultarik langileak beren lanpostuetara presentzialki itzultzearen gainean. Deialdia egin duten sindikatuek irizten diote ez dituztela hartu beharrezko neurriak kolektiboki osasunerako arriskurik gabe lanera itzultzeko; ez langileei begira, osasunerako arriskurik gabe bueltatu daitezela lanera, ez ikasleei begira. Horregatik, hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragileekin benetako negoziazio-prozesu bati ekitera behartu nahi da Hezkuntza Saila, irakasleak eta hezkuntzako gainerako langileak osasuna arriskuan jarri gabe lanera bueltatzeko baldintzak negoziatze eta adoste aldera. Ildo horretan, alderdi honek ez daki Hezkuntza Sailak egin ote duen laneko arriskuen beharrezko ebaluazio egokirik, lanera bueltatzeko egoerak eskatzen duen moduan; horrekin, urratu egiten da laneko osasunaren gaineko araudia, ezin baita behar bezala babestu ebaluatu gabe dagoena.

LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUAVICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

Sindikatuak gaineratzen dutenez, aurrez aurreko jardueretara itzultzea Hezkuntza Sailaren aldebakarreko erabakia da, erakunde sindikalekin alderatu eta negoziatu gabe hartua, eta, hori hala den aldetik, alde honek ezin du egin kudeaketarik ageri diren desberdintasunak konpondu ahal izateko. *Hala ere, alderdi honek adierazten du erabat prest dagoela greba-deialdia eragin duten gaiet buruz hitz egiteko eta negoziatzeko.*

Espainiako Konstituzioaren 28.2-artikuluak langileen greba-eskubidea aitortzen du haien interesak defendatzeko bitarteko gisa, eta gaineratzen du horixe dela egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoaren oinarritzko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin zerrendatzen eta babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizitza, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, zirkulazio askea, eta informazio-askatasuna, besteak beste. Konstituzioak erabat babesten ditu eskubide horiek guztiak, bai eta greba egiteko eskubidea ere.

Hori ikusirik, gerta liteke greba egiteko eskubideak talka egitea herritarren gainerako oinarritzko eskubideekin. Hori saihesteko, Espainiako Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, neurri egokiak hartu behar dira gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko, ez dadin geratu egikaritu gabe gatazkan dauden eskubide horietako bat bera ere.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da ezen, oinarritzko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin, proportzionaltasunaren printzipioa zorroztasunez aplikatuz hartu behar dela, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, «egokitasun-judizioa» deritzona; egitatea aztertuta, ondorioztatzea ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, hau da, «beharrizanezko judizioa» deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurritsua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik, hauxe ondorioztatu behar dugu: gizartearentzat funtsezko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeak mugatu egiten du grebarako eskubidea ballatzeko aukera, eta, ondorioz, nahitaezkoa da interes guztiak kontuan hartuta eta orekaz jokatzeko. Alegia, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien artean ezinbestean lortu beharreko koordinazioa oinarri hartuta, betiere ulerturik grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko



LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA

VICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, beraz, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira aintzat.

Iraupenari dagokionez, 2020ko irailaren 15eko lanaldi osorako egin da deialdia. Jarduera-esparruarekin loturik, deialdi bat baino gehiago aurkeztu diren arren, Euskal Hezkuntza Sistema osoan deitu dute greba orokorra *de facto*, unibertsitateetan izan ezik; izan ere, ikastetxe denetako hezkuntza-etapa guztietako langile oro daude deituta grebara (Haurreskolak barne), Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten sare publikokoak zein pribatu eta itunpekoak, baita zentro horietan azpikontratatuta dauden jantoki-, garraio- eta garbiketa-zerbitzuak ere. Hori dela eta, erabaki da deialdi horiek bateratuko dituen gutxieneko zerbitzuen agindu bakarra ematea.

Jokoan dauden eskubideen garrantzia bermatuko duten gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, lehenik eta behin, nahitaezkoa da ikastetxeak ikasleentzat irekita egotea, eta, bestetik, beharrezkoa da greba egiten ez duten langileen lanerako eskubidea babestea –Konstituzioaren 35. artikuluan aitortua–. Horregatik, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzutat jotzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea; gutxienez, grebarako eskubidea ez baliatzea erabakitzen duten langileek lantokira sartu ahal izateko, baita ikasleek berek ere. Izan ere, ikastetxeak ireki ezean, erabat eta bidegabeki eragotziko litzateke lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa.

Bigarrenik eta hezkuntza-esparruarekin loturik, kontuan hartzekoa da hezkuntza-eskubidea oinarrizko eskubidea dela, Konstituzioaren 27. artikulua aitortua. Artikulu horrek, hain justu, zentzu zabalean ulertzen du eskubide hori; hau da, hasi haurtzarotik, umeek beren garapen integrala eskuratzeko nahitaez jaso beharreko hezkuntzarekin lotua, baina baita unibertsitate-hezkuntza bera ere. Eskubide horren barruan bilduta dago Haurreskolak Partzuergoa osatzen duten zentroak zabaltzea ere. Horrekin loturik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko urriaren 28ko Epaiak adierazitako moduan, oinarrizko zerbitzua da, bai Konstituzioaren 27. artikulua aitortzen duen hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen ikuspegitik, bai lan-eta familia-bizitza bateragarri egitearen ikuspegitik, zeina lanerako eskubidearekin lotuta baitago, gizarte-harremanen bilakaera dela eta.

Unibertsitatez besteko ikastetxeak irekitzea ez da «ikastetxea irekitze» hutsa; aitzitik, irakaskuntza-egitekoaren edo -jardueraren ezinbesteko «funtzionamendu-errutinak» bete behar dira (gutxieneko zerbitzuen izaera murriztailearen eraginez), ikastetxe horietan instalazioak edo materialak ez ezik ikasleak berak ere zaintzeko. Izan ere, ikastetxe horietara ikasle adingabeak joaten direnez –adingabeei ezin zaie eskatu helduei eskatzen zaien heldutasun-maila bera haien jardunean, eta, horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ezin da guztiz baztertu (Auzitegi Gorenaren 2002ko

LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUAVICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

apirilaren 14ko Epaia)–, berebiziko arreta eskatzen da saihestekoak diren arriskuak ezabatzeko edo murrizteko; alegia, instalazioak behar bezala eduki eta mantendu behar dira, bai eta zaintza- eta kontrol-lanak egin ere –eta umeak edo ezgaiak irakaskuntza- edo prestakuntza-jarduerak garatzen diren egoitza batean zaintzeko ardura hartzen bada [...] arreta berezia jarri behar da haiek nozitu lezaketen edozein lesio edo kalte saihesteko. Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1526/2009 Epaia, urriaren 23koa (Administrazioarekiko Auziak, 1. sekzioa)–. Horren ondorioz, ezarri behar da agente- eta/edo zuzendaritza-ahala duten pertsonak izan behar direla ikastetxeotan gutxieneko zerbitzu gehigarri gisa, eta beren gain hartu behar dutela ikastetxe horietara joaten diren adingabeen gaineko ardura, ikuspuntu objektibo batetik arriskutsuak izan litezkeen guneetara joatean prebentzio eta segurtasunerako arreta bermatzeko.

Hirugarrenik, gaur egungo egoeran garrantzi bizia dute bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako, eta osasunerako eskubideek, zeinak Espainiako Konstituzioaren 15. eta 43. artikuluetan baitaude jasota. Ezin da ahaztu greba-deialdia COVID-19ak eragindako osasun-krisiarekin loturik dagoela, bai eta osasun-, gobernu- eta hezkuntza-agintariek hartutako neurriekin ere. Hori horrela, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzko Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduak honako hau dio bosgarren puntuan: Hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jardura presentzial guztiak prebentzio-, osasun- eta higienearauak errespetatuz egingo dira, babes-arauak eta pertsonen arteko distantzia errespetatuz eta maskarak erabiliz.

Horregatik, prebentzio neurri osagarri orokorrak txertatu dira ikastetxeen kudeaketan egunotan. Neurri horiek Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratutako zenbait dokumentutan daude jasota (<https://www.euskadi.eus/koronabirusari-buruzko-informazioa/web01-s2hhome/eu/>). Hauexek dira, hain justu:

1. Ikasturte hasierarako Jarduketa-protokolo osagarria eta ikastetxeetan COVID-19 kasuak agertzen direnerako jardunbideak.
2. Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra. 2020-2021 ikasturtea.
3. Prebentziorako neurriak. 2020-2021 ikasturtea.

COVID-19ak eragindako egoera berezia dela eta, beharrezkoa izan da, gainera, pandemiaren egoerari buruzko txosten bat eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzari. Kasu berriei dagokienez, txostenak jasotzen duenez, *pandemia egonkortze-fasean sarturik dago, kasu berriei dagokienez. Hori ostalaritzako ordutegia murriztearen eta 3. eta 4. motako establezimenduak ixtearen ondorio izan daiteke (abuztuaren 19ko Agindua). Ulertu behar da sintomak agertu baino*



LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA

VICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

lehen egoten dela birusaren eraginpean, lehenagokoa dela birusarekin kontaktua izatea; ospitaleratzea, aldiz, geroagoko kontua da, gutxienez, sintomak hasi eta astebetara agertzen dena, prozesua larriagotu ondoren. ZIUn sartzeak eta heriotza-tasak are atzerapen handiagoa izango lukete.

Eta, amaitzeko, hauxe gaineratzen du: Behar adina langile izan beharko dira COVID-19aren aurkako prebentzio-neurriak mantentzeko. Hezkuntza Sailak indarrean dituen jarduera-protokoloetan eta ikastetxeen kontingentzia-planetan:

- *Talde egonkorrak mantentzea.*
- *Pertsona-fluxuak antolatzea.*
- *Distantziak gordetzea.*
- *Maskara erabiltzen dela zaintzea.*
- *Eskuetako higieena eta instalazioak garbitzea eta desinfektatzea.*
- *Kasuak kudeatzea.*

Azken puntu hori dagokionez, ikastetxeek beharrezko informazioa eta pertsonak izan beharko dituzte COVID-19 kasu positiboan kontaktu-azterketa egiteko, baita horren ondoriozko jarduketak ezartzeko ere. Ikastetxean egon beharko dute bai zuzendariak, bai COVID-19arekin loturiko gaietarako erreferentziako arduradunak.

Jangela-zerbitzuari dagokionez, eragindako eskubideak oinarrizkoak dira, eta, horrenbestez, ezinbestekotzat jotzen da zerbitzu hori, hezkuntza eta haurren eta nerabeen babes eta garapen integralarekin baitaude loturik. Estatuko araudian ez ezik –Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, eta Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilari buruzko Legearen aldaketa partzialari buruzkoa–, Euskal Autonomia Erkidegokoan ere jasota dago hori –Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean, alegia–. Jurisprudentziak berresten ditu alderdi horiek, Auzitegi Gorenaren aginduetan behin eta berriz adierazi den moduan: Auzitegi Gorenaren 1994ko maiatzaren 20ko Epaia eta Auzitegi Gorenaren 2009ko apirilaren 14koa. Lehen Epaia hauxe dio: «Ikasleak otorduaz gabetzeak osasunerako eta hezkuntzarako konstituzio-eskubideak urratzen ditu». Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, lurraldeetako deialdien aurrean, onartua du funtsezko izaera hori. Ikus, konparazio batera, 2010eko abenduaren 22ko eta 2011ko urtarrilaren 13ko epaiak.

Garbiketa-zerbitzuei dagokienez, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak (Espainiako Estatuak 1990eko azaroaren 30ean berretsia) 24. artikuluan xedatzen du haurrek eskubidea dutela ahalik eta osasun-mailarik onena izateko, eta horretarako oinarrizkoak direla higieenaren arloko neurriak, ingurumen-osasunari lotutakoak eta istripuei aurrea hartzekoak. Hori dela eta, haurrek egunaren parte handi bat greba-deialdiak eragindako ikastetxeetan igarotzen dutenez, neurriak hartu behar

LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUAVICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

dira zentro horietan gutxieneko higie-ne eta osasungarritasun-baldintzak betetzen direla bermatzeko, haien osasuna, hazkuntza eta garapena arriskuan jar ez daitezzen, eta bereziki kontuan izanik ume txikienek ezagutza-gaitasun txikiagoa dutela higienari buruz.

Gainera, eta gaur egungo osasun-larrialdiko egoeran, garbiketak garrantzi berezia du kutsatzeak saihesteko. Hori horrela, arlo horretako jarduera bereziak ezartzen dira lehen aipatutako protokoloetan, eta, ondorioz, ohiko garbiketa-zerbitzuak indartu behar dira zentro horietan.

Horiek guztiak ikusita, agindu honetan zehazten dira gutxieneko zerbitzuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Hori guztia dagokigun grebarako aintzakotzat harturik, lan-agintaritza honek egokitzen du grebaren eraginpean dauden ikastetxe guztietan ezartzea, batetik, zuzendaritza-taldeko pertsona bat, eta, bestetik, mendekoen kidegoko langile bat goizeko txandarako eta beste bat arratsaldekorako, guztia ere ikastetxeetara sartzeko kontrola bermatzeko.

Hala ere, funtsezko zerbitzu horiek zenbateste aldera, lan-agintaritza honek egokitzen du hezkuntza-etapak bereiztea. Izan ere, ikastetxeek une honetan nahitaezko osasun-gomendioak bete ahal izateko, kontuan hartu behar da ikasleen heldutasun-maila. Adinaren arabera, ikasleek zaintza eta kontrol handiagoa edo txikiagoa behar dituzte, eta eman beharreko zaintza integralek intentsitate-maila desberdina eskatzen dute.

Are gehiago, hori eragin zuen arrazoia desberdina den arren egungoaren aldean –hau da, orduan grebaren iraupenarengatik izan zen, eta ez gaur egungo osasun-larrialdiagatik–, Gizarte Ekimeneko Irakaskuntzaren sektorean 2019ko urtarrilean, martxoan, apirilean, maiatzean, azaroan eta abenduan deitutako grebetan erabili zen bereizketa hori, ikasleen adinaren arabera ikasleen heldutasun- eta zaintza-beharretan oinarrituta, eta ezartzen ari ziren gutxieneko zerbitzuak birplanteatzera behartu zuten Lan Agintaritza hau, ikasleen segurtasuna bermatzeko, bereziki Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak dauden ikastetxeen kasuan. Hori guztia 2019ko urtarrilaren 15eko Aginduan jaso zen, eta bere horretan eutsi zitzaion hurrengo deialdietarako emandako aginduetan. Agindu horietako biren aurka (zehazki, 2019ko urtarrilaren 15ekoa eta 2019ko martxoaren 7koa), errekurtsua aurkeztu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, eta hark ezetsi egin zituen ekainaren 26ko 327/2019 Epaian (59/2019 administrazioarekiko auzi-errekurtsu arrunta eta haren 62/2019 metatua) eta irailaren 10eko 361/2019 Epaian (Babes juridikzionaleko 177/2019 administrazioarekiko auzi-errekurtsua), eta, hortaz, berretsi egin zituen aipatu ditugun aginduak.



LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA

VICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

Hori horrela, beharrezkotzat jotzen da gutxieneko zerbitzu horiek areagotzea Haur Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetan (0-2 urte eta 3-5 urte bitartekoetan, hurrenez hurren), bai eta Lehen Hezkuntzan ere (6-11 urte), ikastetxe bakoitzean etapa horietan matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera, ikasleen segurtasuna eta osasuna bermatu ahal izateko.

Bereziki aipatzekoak dira hezkuntza bereziko ikastetxeak. Ikastetxe horietara joaten diren ikasleek, beren egoera bereziengatik (ezgaitasuna duten pertsonak eta mendekotasun maila altukoak), laguntza orokorra behar dute, eta arreta oso indibidualizatua ez ezik baliabide intentsibo eta jarraituak ere eskatzen dituzte. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da gela horietako langileen % 75 bertan egotea, zentro horiei berez dagokien babes-funtzioa bermatzeko.

Jantokiko zerbitzuari dagokionez ere, beharrezkotzat jotzen da aldeak ezartzea hezkuntza-etaparen arabera, aurreko deialdietan emandako Oinarrizko Zerbitzuen Aginduetan ohikoa izan den moduan. Beraz, bermatu egingo da jantoki-zerbitzua, ikastetxeetan beretan edo ikastetxeek azpikontrataturako enpresetako sukalde zentraletan erraz eta modu sinplean prestatzen diren elikagaiak eskainiz. Azpikontrataturako sukaldaritza-zerbitzuen kasuan, bermatu beharko da iritsiko direla otorduak ikastetxeetara. Guri dagokigun greba-egunerako, egokituz jotzen da gutxieneko zerbitzu gisa ezartzea, eta, xede hori betetzeko, sukaldeko langileen eta monitoreen % 10 ezartzea haur-hezkuntzako etaparako. Ehuneko hori handitu egingo da lehen zikloko ikasleen eta hezkuntza-premia bereziak dituztenen kasuan.

Garbiketa-zerbitzuari dagokionez, ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorrak ezartzen duenez, sarritan garbitu eta desinfektatu behar dira pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak, eta, beraz, ezinbestekoa da higiene- eta garbiketa-neurriak areagotzeasarriraino garbitu eta desinfektatu behar dira pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak, eta, beraz, ezinbestekoa da higiene- eta garbiketa-neurriak areagotzea.

Gainera, EAEko ikastetxeetan COVID-19arekiko esposizio-arriskuari buruzko lan-arriskuen prebentzio-neurrien dokumentuan ondorioztatzen denez, garbiketa-protokolo bat ezarri behar da ikastetxeetako kontingentzia-planak egiteko, zeinak honako ohar hauek jaso beharko baititu:

1. Erabiltzen diren gelak garbitzea, gutxienez egunean behin, eta behar duten espazioetan garbiketa areagotzea, erabileraren intentsitatearen arabera; adibidez, komunak egunean hiru aldiz garbituko dira gutxienez. Hor bildurik dago mahai, aulki, tresna eta lan-ekipoen gainazalak garbitzea.

LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUAVICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

2. Arreta berezia eskainiko zaie erabilera arrunteko eremuei eta ukipen-azalera ohikoenei, hala nola ate-helduleku, mahai, altzari, eskubanda, zoru, telefono, esekigailu eta antzeko ezaugarriak dituzten beste elementu batzuei.
3. Garbiketa-neurriak, hala badagokio, langileen eremu pribatuetara ere zabalduko dira; esaterako, atsedeen-eremuetara, aldageletara, armairuetara, komunetara, sukaldeetara (baxera, mahai-tresna eta edalontzi-guztiak ontzi-garbigailuan garbituko dira, baita erabili ez dena ere, ikasleen eskuekin kontaktuan egon dela iritziz gero).
4. Halaber, txanda-aldaketa bakoitzean eta lanaldia amaitzean, partekatutako lanpostuak garbitu eta desinfektatuko dira, eta garbiketa-produktuari jarduten utziko zaio, arreta berezia jarritzaz altxariei eta eskuztatu daitezkeen beste elementu batzuei, batez ere langile batek baino gehiagok erabiltzen dituenetan. Partekatutako ordenagailu bat erabiltzen amaitzean, teklatuaren, saguaren eta pantailaren gainazala garbituko da gel desinfektatzailez.
5. Fisioterapeutek, garbiketako arduradunek, arropa eta pixoihalak aldatzen dituztenek eta, oro har, ikasleei laguntza ematen dieten langileek erabilitako eremu osoa garbitzen saiatu beharko dute erabili ondoren.
6. Desinfektatzaileak baliatuko dira, hala nola lixiba-diluzio prestatu berriak (1:50), edo osasun-agintariak baimendu eta erregistratutako birusen aurkako efektudun desinfektatzaileetako edozein. Produktu horiek erabiltzean, etiketaren eta segurtasun-filtxaren oharrak errespetatuko dira beti.
7. Garbiketa bakoitzaren ondoren, modu seguruan bota behar dira erabilitako materialak eta erabilitako babes-ekipamenduak, eta ondoren eskuak garbitu.
8. Kontu handia hartu behar da paperontzien garbiketarekin, garbi eta materialak bilduta gera daitezkeen eta ez dadin gertatu halabeharrezko kontakturik.

Neurri horiek betetzeko, garbiketa-zerbitzuan aritzen diren ohiko langileen ehuneko jakin bat ezarri behar da. Egungo egoera ikusita, ezinbestekoa da ohiko langileen % 100 bertaratzea.



LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA

VICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

Gai honetan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzari esleitzeak zera bermatu nahi du, gobernu-erantzukizuna eta -ahala duenak bakarrik ezar ditzakeela greba-
eskubidearen egikaritzeak izan behar dituen mugak, eta ezarri ere zuzenbidearen
arabera ezarri behar dituela, funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, oinarrizko
beste eskubide batzuk betetzera bideratuta dauden heinean.

Izan ere, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege
Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «Greba egiten denean edozein
zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrezko edozein
zerbitzu eskaintzen duten enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak direnean,
gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen
funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak
diren esku-hartze neurriak har ditzake».

Konstituzionaltasun aitortua duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren
11/1981 Epaia, apirilaren 8koa, 1981/11 Errekurtsoarena), Konstituzioaren greba-
eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorriz, honako hau ezartzen da: «Eskubide
horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu
herritarrentzako oinarrizko zerbitzuak mantenduko direla ziurtatzeko». Azken batean,
gobernu-agintaritzari ematen zaio ahalmena edozein motatako berme-neurriak
hartzeko, greba -kasuan ezinbesteko zerbitzuei eusteko modua izan dadin, eta hori
egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko
gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, bai eta lan-prestazio hori eskaini behar duten
langileei haiek bete ditzaten eskatzea ere.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko Errege Lege Dekretuaren (martxoaren 4ko
17/1977) 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta hitz egiteko aukera
eman zaie greba deitu duten sindikatuei, eragindako enpresa-erakundeek eta Hezkuntza
Sailari, Jaurlaritzaren proposamenaren eragina jasango duten zerbitzuei eta langileei
buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia
Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien
egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) Lan eta Justizia Saila sortzen du 2.
artikuluan, eta 6. artikuluan, berriz, lan-harremanen arloko lan-legeria betearazteko
eskumena esleitzen dio aipatutako sailari bere funtzioen artean. Bestalde, aipatutako
dekretuaren Xedapen Iragankor Bakarrak jasotzen duenez, indarrean jarraituko dute
Lehendakariaren eta Jaurlaritzako Sailen egitura eta eginkizunak zehazten dituzten
arau organikoek, Azken Xedapenetako Lehenengoan aurreikusitakoa gauzatu bitartean.
Beraz, indarrean jarraitzen du apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuak (Lan eta Justizia
Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko), zeinak honako hau ezartzen
baitu bere eginkizunen artean, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez
eskuordetutako eskumenez: beharrezko neurriak zehaztea, ziurtatzeko bermatuko direla
komunitatearen funtsezko zerbitzuak greba-kasuetan, baldin eta zerbitzu publiko



LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA

VICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

onartuen edo geroraezinen prestazioaz arduratzen diren enpresa, entitate eta erakundeei eragiten badiete.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Enpleguko sailburuak, Eusko Jaurlaritzak emaniko eskuordetza baliaturik, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Euskal Hezkuntza Sistemaren esparruari eragiten dion greba-eskubidea, oro har, hezkuntza-etapa guztietan baliatuko ahal izango da 2020ko irailaren 15ean lanaldi osoz, unibertsitate-etapan izan ezik; greba-eskubide hori baliagarria izango da, halaber, hezkuntza bereziko zentro eta haurreskoletan ere. Horretarako, jarraian zehazten diren oinarriko prestazioak eta gutxieneko zerbitzuak gorde beharko dira:

1.- Ikastetxeetara sartzeko kontrola bermatzeko, grebak eragindako ikastetxe guztietan, ikastetxe bakoitzean eta atxikitako eraikin bakoitzean: zuzendaritza-taldeko kide bat, eta mendekoen kidegoko langile bat goizeko txandarako eta beste bat arratsaldeko txandarako, halakorik bada. Eta, kasu guztietan, ikastetxeko bakoitzeko COVID-19ko koordinatzailea ere bai.

2.- Babesa eta osasuna bermatzeko, honako hauek gehituko zaizkie 1. zenbakian finkatutako zerbitzuei:

2.1. Irakasle bat hezkuntza-etapa bakoitzeko (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa).

2.2. Haur Hezkuntzako 1. eta 2. zikloko (Haurreskolak barne) eta Lehen Hezkuntzako etapetan, bi irakasle gaineratu beharko dira etapa bakoitzean matrikulatutako 100 ikasleko. 200 ikasletik gora, beste bi irakasle, eta horrela jardungo da etapa bakoitzean 100 ikasleko muga gainditzen den bakoitzean.

2.3. Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan edo Hezkuntza Bereziko gela egonkorretan, ikasgeletako ohiko langileen % 75.

3.- Bermatu egingo da jantoki-zerbitzua, ikastetxeetan beretan edo ikastetxeek azpikontrataturako enpresetako sukalde zentraletan erraz eta modu sinplean prestatzen diren elikagaiak eskainiz. Azpikontrataturiko sukaldaritza-zerbitzuen kasuan, bermatu beharko da iritsiko direla otorduak ikastetxeetara. Sukaldeko langileen % 10 beharko dira eginkizun horiek betetzeko. % 10 horretan pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek bete beharko ditu esandako zerbitzuak.



LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA

VICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

Ikasleei janaria emateko, erabili eta botatzeko materiala baliatu beharko da. Jantokia garbitzeko, berriz, 4. atalean garbiketa-zerbitzuari buruz ezarritakoa bete beharko da.

Langileok ikasleei arreta emateko eta jangelak irekita edukitzeko lanetan ari diren bitartean, monitoreen ehuneko hau ezarri da, hezkuntza-zikloen eta -etapen arabera:

3.1. Haur Hezkuntzako ikasleak (1. zikloa: 2 eta 3 urte):

- Monitore bat 9 jankideko, 2 urtekoen gelan

- Monitore bat 15 jankideko, 3 urtekoen gelan.

3.2. Lehen Hezkuntzako ikasleak (2. zikloa: 4 eta 5 urte):

- Ikastetxeko monitoreen % 10. Halaber, % 10 hori pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek bete beharko ditu zerbitzu horiek.

3.3. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak: haien elikadura-beharrak asetzeko behar den gutxieneko monitore kopurua.

4.- Bermatu egingo da ikastetxeetako garbiketa-zerbitzua, barnean harturik garbiketa arrunta eta ikastetxeetako kontingentzia-planetan jasotako gomendioak betetzea, guztia ere argitaratutako osasun-gomendioei jarraikiz. Eginkizun horietarako, zerbitzuotan jarduten duten langileen % 100ek jardun beharko dute, eta ez dute inoiz izango ohiko lanaldia baino luzeagoa.

Bigarrena.-

1. Greba egin behar ez duten langileek emango dituzte aipaturiko zerbitzu horiek, ahal izanez gero.

2. Langileen ordezkariak entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko du zer langilek beteko dituzten gutxieneko zerbitzuak eta zer txandatan jardungo duten langile horiek. Nolanahi ere, aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen gutxieneko zerbitzu horiek: lehenik, zerbitzu horiek egin ohi dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, bigarrenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

Hirugarrena.- Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin dira aldatu zerbitzu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontratizat joko dira eta egileei eskatuko zaie erantzukizuna, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUAVICELEHENDAKARI Y
CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO

Laugarrena.- Aurreko zenbakietan xedatutakoak ez ditu mugatuko greba arautzen duen araudiak egoera horretan dauden langileei aitortzen dizkien eskubideak, ez eta greba eragin duten eskaeren izapidetzearekin eta ondorioekin lotuak ere.

Bosgarrena.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Seigarrena.- Jakinaraz bekie agindu hau interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015) 40. artikuluan xedatutako moduan. Adieraz bekie, halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela, eta administrazioarekiko auzietarako errekurtsua jarri ahal izango dela haren kontra Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunetik kontaktzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean (uztailaren 13ko 29/1998) xedatutakoaren arabera.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015) 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, jakinaraz bedi aukerako berraztertze-errekurtsua aurkez daitekeela agindu honen aurka lan-agintaritzan, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 14a

Idora Mendia-Cueva

**LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**